

UEU

Urteko Txostena
2019



- 7 Sarrera**
- Euskal Unibertsitatearen Bidean
 - Zuzendaritza berri du
 - UEU, KORRIKArekin bat
 - UEU ELHUYAR Zientzia Azokarekin bat
 - Sailburuen Biltzarra
- 8 Jarduera akademikoa**
- ESKAINZA PROPIOA**
- Udaberri eta udazkeneko ikastaroak
 - Udako Ikastaroak #UI47 #ElkarEkin
- HITZARTUAK**
- PREST_GARA
 - Nafarroako Unibertsitateko Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin elkarlanean
 - OIHANEDER Euskararen Etxearekin elkarlanean
 - Haurreskolen Partzuergoa
 - “Euskaltzaletasuna eta feminismoa” ikastaroa
 - Bestelako eskaerak
- UNIBERTSITATE-MAILAKO PRESTAKUNTZA**
- JARDUNALDIAK**
- IkerGazte2019
 - Udako Ikastaroen barruan
 - Udazkenean
- GRADUONDOKOAK**
- Berezko tituluak
 - Aritu-tituluak
- IKERKETA**
- “Helduen euskalduntze alfabetatzea aurrera begira” glotodidaktika VI. Topaketa bilbon
 - Natur Zientzien III. Topaketa Gasteizen
 - “Hitz adina mintzo” hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloa gasteizen
 - IkerGazte 2019 martxan
 - Koldo Mitxelena beka
 - Buletin akademikoa jarri du martxan
- 13 Argitalpenak**
- Beste urtebetez, unibertsitate-mailako argitalpenei dagokienez, 11 liburu berri argitaratu ditugu
 - UZTARO aldizkaria ERIH PLUS datu-basean sartu da
 - ALDIRI aldizkariak 10 urte
 - OSAGAIZ aldizkaria
 - Unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko deialdia eta diru-poltsak
 - BURUXKAK liburutegi digitala
 - Sarako Idazleen Biltzarra eta Liburu Azokan egon gara
 - Durangoko Azoka #54DA
- 17 Informazio- eta komunikazio-teknologiak**
- INGUMA datu-basea
 - TESIKER, hobetuta
 - ARTIZARRA sare soziala, komunitatea trinkotzen
 - UNIBERTSITATEA.net ataria

Sarrera

Euskal Unibertsitatearen Bidean

2019an Goi-mailako Online Institutua prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketako Ikastegia sortu da. UEUren barnean antolatu da eta UPV/EHUren ikastegi atxikia da dagoeneko, online unibertsitate-ikasketak euskaraz sustatzeko asmoz. Eta horren baitan 2020/2021 ikasturterako **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra** prestatzen ari gara. Euskaraz eskainiko da (ingelesezko hautazko batzuekin) eta eskolak Ikasgela Birtualaren bitartez eskainiko dira 3 espezialitatetan: Natur Zientziak eta Matematika, Giza eta Gizarte Zientziak, eta Hizkuntza eta Literatura. Espezialitate bakoitzean 40na ikasle izango dira, guztira 120.

Zuzendaritza berritu dugu

Otsailean UEUK Batzar Nagusia egin du Eibarko Ikastetxe Nagusian. Bertan, Talde Eragileak aurkeztutako 2018ko balorazioa eta 2019ko egitasmoa onartu dira. Zuzendaritza ere berritu dugu. Azken urteetan Talde Eragileko kide izan diren **Ane Ablanedo**, **Eneko Bidegain** eta **Izaskun Elezgarairi** egindako lana eskertu zaie. Bestetik, Talde Eragileko kide izateko **Ines Castiella** ingeniaria eta **Koldo Garcia** ikertzailearen hautagaitzak onartu ditu batzarrak.

UEU, KORRIKArekin bat

Oraingoan ere UEUK parte hartu du **KORRIKAN**, eta hauxe izan da gure klika: "Euskal Herriko aditu eta profesional euskaldunek ARTIZARRA sare sozialean klika dezaten konpromisoa hartzen dugu ikertzaile eta profesionalen euskarazko komunitate

hau ezagutarazi eta beraien arteko harremanak ahalbidetzeko". UEUren kilometroa hauxe izan da: **"UEU, Euskal Unibertsitatearen alde lan egiten"**. Gurekin batera UEUkideak ere deitu ditugu ekimen honetan parte hartzera.

UEU ELHUYAR Zientzia Azokarekin bat

UEUtik gure lankidetzak eskaini dugu gazteentzako Elhuyar Zientzia Azoka 2018-2019 egitasmoa indartzeko. Ekimen horretan, 12-18 urte bitarteko gazteek, talde txikitan, ikerketa-proiektu bat edo proiektu teknologiko bat garatu dute ikasturtean zehar, eta apirilean Bilboko Plaza Barrian egin den Zientzia Azokan aurkeztu dute. Gure bazkideak eta lankideak ekimenean parte hartzera animatu ditugu. Horretaz gain, sari bat ere eman dugu.



Sailburuen Biltzarra

Azaroan egin dugu Sailburuen Biltzarra. Bertan, UEUko sailen eta egituraren arteko koordinazioa landu, esku artean dauden proiektuak eztabaidatu eta sailen arteko harremanak sustatu ditugu.

Jarduera akademikoa

ESKAINZA PROPIOA

UEUk bere neurria egiten duen eskaintza da hau eta helburu nagusia da gizarteari bizialdi osoko irakaskuntza eskaraz eta kalitatez eskaintzea.

Udaberri eta udazkeneko ikastaroak

Guztira 27 ikastaro eta 460 ordu eskaini ditugu Eibarren, Iruñean eta ikasgela birtualaren bitartez (11 ikastaro izan dira online). 205 matrikulatuk eta 39 irakaslek parte hartu dute bertan. Landutako gaiak askotarikoak izan dira: euskararen irakaskuntza, matematikaren irakaskuntza, hizkuntza-teknologiak, adin txikikoak eta Internet, XXI. mendeko eskola, Moodle eta online irakaskuntza, R-softwarea, genero-berdintasuna hezkuntzan, galerak eta heriotza, estresa, ahozko komunikazioa, Gau Beltza, XX. mendeko estatu-indarkeria, adimen emozionala, haur eta gazteen transexualitatea, produktibitatea, irudi-laburpenak...

Udako ikastaroak #UI47 #ElkarEkin

Guztira aurrez aurreko 39 jarduera eta 423 ordu eskaini ditugu (33 ikastaro eta 6 jardunaldi). 668 izen-emate eta 203 irakaslek parte hartu dute bertan. 9 egoitza desberdinetan eman ditugu eskolak: Baiona, Bilbo, Donostia, Eibar, Iruñea eta Usurbilen. Horretaz gain, hainbat eragilerekin antolatu ditugu ikastaroak, hori dela eta, hemendik aurrera Udako Ikastaroen leloa #ElkarEkin izatea erabaki dugu: UEUko sailak (12 sail / 11 ikastaro) eta hainbat elkarte, erakunde eta eragile, hala nola ALDEE, .Eus Fundazioa, IPES, Ernai, EEP, Euskaltzaindia, IKAS zentroa, EWKE, EHU Gogo Elebiduna taldea, Behategia, Codesyntax, Talaios,

EMAUS, JAKIN, Usurbilgo Udala, GEZKI, Ikastolen Elkarte, Nafarroako Eskola Kontseilua (Ezpeleta jauregia), Bernat Etxepare Lizeoa eta Seaska, EHUKo Kimika Analitikoa Saila, Tolosa Garatzen erakundea eta Iratzar Fundazioa. Gaiak askotarikoak izan dira. Partaideen asetasun-maila altua izan da: 4,5 (1-5 eskalan).

HITZARTUAK

Hirugarren eragile batekin adostutako eskaintza da. Deialdiek, formazio-programek edo beren-beregi eta neurria egindako ikastaroek osatzen dute.



PREST_GARA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak irakasleen etengabeko prestakuntzarako ateratzen duen deialdia da. Gaiak, iraupenak, tokiak, formatuak... deialdian datozenak dira eta guk egitarauak osatzen ditugu, horretarako UEUren inguruan lanean dabiltzan profesionalen sare aberatsa daukagu. 15 ikastaro (horietako 7 online) eta

455 ordu eskaini ditugu. 246 izen-emate eta 30 irakaslek parte hartu dute bertan. Landu ditugun gaiak hauek izan dira: matematikaren irakaskuntza, ikasleen nortasun digitala, sare sozialak, hezkidetzak, hezkuntza afektibo sexuala, geogebra, euskararen irakaskuntza, STEAM diziplinak eta hezkidetzak, hizkuntzen irakaskuntza, zehar-konpetentziak, balio etikoak eta gorputz-hezkuntza. Urtero balorazio oso onak jasotzen ditugu, 4,5etik gorakoak (1-5 eskalatik).

Nafarroako Unibertsitateko Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin elkarlanean

Elkarlan honen bigarren urtea izan da hau. Guztira 12 ikastaro (3 online) eta 189 ordu eskaini ditugu Iruñean. 92 pertsonak parte hartu dute bertan (guztira 300 izen-emate jaso badira ere). Landutako gaiak askotarikoak izan dira: geogebra, hizkuntzen irakaskuntza, euskararen erabilera, ongizate emozionala, adimen-gaitasun handiak, gatazken ebazpena, proiektu bidezko metodologiak, ebaluazioa, gaitasunak eta harremanak 3.0.

OIHANEDER Euskararen Etxearekin elkarlanean

Bi erakundeok lankidetzak-hitzarmena dugu 2017. urtetik. Bertako eskaintza euskara oinarri hartuta (hizkuntza, hizkuntzalaritza, filologia, soziolinguistika) diseinatzen da eta UEU Gasteizen ere bere eskaintza kokatzeko bidea egiten dabil. Aurten bi ikastaro antolatu ditugu Gasteizen, haien egoitzan: "Hitz Adina Mintzo" eta "Soziolinguistika hiztegi txikia". 33,5 ordu eskaini ditugu eta 124 ikaslek eta 10 irakaslek parte hartu dute.

Haurreskolen Partzuergoa

Haurreskolen Partzuergoarekin bi proiektu ditugu esku artean: "Hezkidetzak Proiektua" eta "Hezkuntza Proiektua". Ikasturte osoko jarduerak dira, haur-eskoletako hezitzaileen barne-formazioarako propio sortuak. Guztira 880 ordu eskaini ditugu aurrez aurre eta online eta 1.002 hezitzailek parte hartu dute bertan. Saioak Bilbo, Gasteiz, Donostia, Zornotza, Tolosa eta Eibarren eman ditugu.

“Euskaltzetasuna eta feminismoa” ikastaroa

Bilboko Gabriel Aresti euskaltegiak proposatu zion UEUri aurreko urtean Gasteizen emandako ikastaroa errepikatzea. Elkarlan bat izan da Kafe Antzokia, Gabriel Aresti euskaltegia, Jakin eta UEUren artekoa. 10 orduko ikastaro honetan 139 ikaslek eta 6 irakaslek parte hartu dute.

Bestelako eskaerak

Tarteka eta tantaka, hainbat eragilek gugana jotzen dute beren barne-formazioa lotzeko eta beren beregi beren behar hori asetzeko. Iruñeko Udala: “Hizkera argia administrazio elektronikoa eta ahozko komunikazioa” / NUETS elkarte (Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarea): “Nafarroako politika publikoa” / Zumaiako Maria eta Jose BHI ikastetxea: “Internet haur eta gazteekin” / Eibarko Udala: “Produktibitatea” / Tknika eta BirtLH: “Moodle ebaluazioa”. Guztira 58 ordu eman ditugu eta 134 ikaslek eta 8 irakaslek parte hartu dute ikastaro hauetan.

UNIBERTSITATE-MAILAKO PRESTAKUNTZA

JARDUNALDIAK

Ikerketa 2019

150 ikertzaile bildu dira maiatzaren 27, 28 eta 29an Baionako campusean egindako Ikerketa kongresuaren hirugarren edizioan. 111 komunikazio aurkeztu dira eta 180 pertsonak parte hartu dute. Baionan egitea erronka handia zen, baina



emaitzak oso positiboak izan dira, batez ere zenbait eragilerek abiatutako elkarlanagatik, besteak beste, IKER zentroa, Paueko Unibertsitatea, Euskararen Erakunde Publikoa, Baionako Herriko etxea eta Euskal Elkargoa, bai eta bertako komunitate akademikoa hauspotzeko ere. Lau hitzaldi nagusi izan ditu kongresuak: “What does archeology tell us about the origin of modern cognition?” **Francesco d’Errico** (CNRS-Bordeleko Unibertsitatean Ikerketa Zuzendaria eta Bergeneko Unibertsitatean irakasle); “Done bare. Barearen 10 dohaiak ikergai gisa” **Jesus Mari Txurruka** (UPV/EHUko irakasle eta ikertzailea izandakoa. UEUKidea); “The role of multi-disciplinary research in enhancing health services for minority language speakers: a Welsh perspective” **Gwerfyl Wyn Roberts** (Galeseko Bangor University-ko School of Health Sciences-eko irakasle titularra izandakoa) eta “Egile izengabeen irudi ikusezinak esistitu ere egiten ez de herri batendako” **Josu Martinez** (UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio Saileko ikerlari eta irakaslea, zinema-arloan).

Udako Ikastaroen barruan

Sei jardunaldi antolatu ditugu Udako Ikastaroen programaren barruan: “Klima aldaketa”; “Humanitate digitalak, Hizkuntzalari euskaldunak V.”; “Informazio eta Dokumentazio kudeatzailen V. Bilkura”; “Ikastolak eta kooperatibismoa” eta “Maitasuna politikoa da” (Jakin jardunaldia). Jardunaldi hauek Bilbo, Iruñea, Eibar eta Usurbilen egin ditugu eta 250 pertsonak parte hartu dute. Topaketa hauek hainbat eragilerek antolatu ditugu elkarlanean: UPV/EHU, Euskaltzaindia, ALDEE, Ikastolen Elkarte, GEZKI, Jakin, Usurbilgo Udala.

Udazkenean

Sei jardunaldi antolatu ditugu udazkenean: “Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu”; “Euskal Kultur Sorkuntzaren Transmisioa”; “Ekonomialari Euskaldunen I. Biltzarra”; “Geomatika eta Inteligentzia Espaziala”; “Psikologo Euskaldunen III. Topaketa”; “Euskara eta turismoa”. Jardunaldiak Gasteiz, Azpeitia, Donostia, Eibar eta Orion egin ditugu eta 415 pertsonak parte hartu dute. Topaketa hauek hainbat eragilerek antolatu ditugu elkarlanean: Elebilab, Oihaneder Euskararen Etxea,



Azpeitiko Udala, Jalgi, Elkar, Hik hasi, Euskaltzaindia, Ekonomisten elkargoa, Gislán, UPV/EHU, Geoeuskadi, Bizkaiko Psikologo Elkargoa, Orioko Udala, UEMA.

GRADUONDOKOAK

UPV/EHUren eskaintzan UEUK graduondokoak sustatu ditu. Bertan 35 ikaslek parte hartu dute.

Berezko tituluak

- *IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan, etengabeko formakuntzan, eta hizkuntzen irakaskuntzan.* (HEZIKT)
- *Itzulpen gintza eta teknologia.* (ITZULTEK)
- *Euskal Kultur Sorkuntza eta kritika feminista. Ikerketa, Irakaskuntza eta Kudeaketa.*

Aditu-tituluak

- *Hezkuntzarako Baliabide Digitalak: Aukerak eta Arriskuak Jendartean.*
- *Euskal Kultur Sorkuntza eta kritika feminista.*
- *Ikerkuntza Digitala eta IKTak.*
- *IKTak eta Konpetentzia Digitalak Eskolan, Unibertsitatean eta Enpresan.*
- *Hezkuntzarako Baliabide Digitalak: Aukerak eta Arriskuak Jendartean.*

IKERKETA

UEUren zeregina ezberdina da, beka ematen duen erakundearen arabera:

- **Juan San Martin beka (Eibarko Udala).** Deialdia 2019an egin da eta aukeratutako gaia Historia izan da. Josu Martinez, Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatuak eta EHUko doktoreak eskuratu du Juan San Martin beka, Irudiz eta euskaraz, gure hizkuntzaren zinema, gure zinemaren hizkuntza izeneko ikerketa-proposamenarekin.
- **Koldo Mitxelena beka (Errenteriako Udala).** Deialdia 2018an egin zen eta 2020an lana aurkeztu beharko du irabazleak. Beatriz Gallegok eskuratu du beka Errenteriako helduen alfabetatze-prozesua, bizi izan zutenen diskurtsoen azterketatik (1960-1980) ikerketa-proposamenarekin.
- **Humanitate digitalak ikertzeko beka (Euskal Wikilarien Kultur Elkartearekin elkarlanean).** Aurtengo Udako Ikastaroetan UEUK “Humanitate digitalak: aukerak, erakundeen rol berriak eta elkarlana” jardunaldia antolatu zuen eta hortik abiatuta, EWK Erek elkarlanean hiru bekarako deialdia egin dugu 2019an. Irabazleak hauek izan dira: 1. Linked Data hiztegi gintza historikoa: Larramendi eta Autoridades. David Lindermann eta Mikel Alonso. 2. Euskarazko sareko edukietan oinarrituta entitateak eta hauen inguruko informazioaren erazketa Wikidata elikatzeko. Joseba Fernandez de Landa Aguirre eta Rodrigo Agerri. 3. Esplorazio ikerketa sareko euskarazko ikus-entzunezko eduki pedagogiko libreen sortze prozesurako. Kepa Matxain, Lander Arretxea eta Ander Bolibar.

Argitalpenak

Beste urtebetez, unibertsitate-mailako argitalpenei dagokienez, 11 liburu berri argitaratu ditugu

Hauek dira aurten argitaratu ditugun liburuak:

- Komunitatea hats-bahiturik. Hitzunaren trauma: diagnosis eta paliatiboa. Ainize Madariaga Muthular
- Giza histologia medikoa. Edurne Alonso Arana, Iker Badiola Etxaburu
- Hizkuntzalari euskaldunen III. topaketa: Zer berri? Itziar Aduriz Agirre, Ruben Urizar Enbeita
- Ikergazte 2019ko artikulu-bildumak
 - III. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Giza Zientziak eta Artea
 - III. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Ingeniaritza eta Arkitektura
 - III. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Osasun Zientziak
 - III. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Zientziak eta Natura Zientziak
 - III. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea
- Zalantzen amaiera? Argien Mendetik Irudiaren Arora. Aitor Zuberogoitia Espilla eta Josu Zuberogoitia Espilla
- Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen. Miren Artetxe Sarasola, Ane Labaka Mayo

- Erlatibismoaren egiak. Konstruktibismoa, egi-ostea, postmodernismoa eta beste mamu batzuk. Andoni Olariaga Azkarate
- Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko. Oihana Etxebarrieta Legrand, Maria Ruiz Torrado, Laura Vara Jimenez
- IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan. Amaia Arroyo Sagasta, Abel Camacho Romero, Mikel Iruskieta, Montse Maritxalar Anglada
- Lehen Hezkuntzako irakaslegaiantzako



- problemak: Aritmetika eta Aljebra. Ane Izagirre Korta, Joxemari Sarasua Fernández
- Euskararen normalizazioa: ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra. Asier Larrinaga Larrazabal

UZTARO aldizkaria ERIH PLUS datu-basean sartu da

UZTARO, giza eta gizarte-gaiak lantzen dituen aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu aurten (108-111 zenbakiak). Horretaz gain, aldizkaria ERIH PLUS (European Reference Index for the Humanities and the Social Sciences) datu-basean sartu da. Aldizkariak **kalitate** eta **zabalkundeari** lehentasuna ematen dio eta ERIH PLUS datu-basean gehitua izatea urrats bat gehiago izan da kalitateari dagokionez. Mota horretako datu-baseetan gehitua izateko beharrezkoa da aldizkariak maila altuko indexazio-estandar teknikoak betetzea, eta, ondorioz, aldizkariaren prestigiorako eta bertan argitaratzen duten ikertzaile eta idazleentzako aurrerapauso garrantzitsua da hau.

ALDIRI aldizkariak 10 urte

ALDIRI. Arkitektura eta Abar aldizkariaren 4 zenbaki argitaratu ditugu:

- Aldiri 37. Topaketen kartografia II
- Aldiri 38. Memoriaren espazioa
- Aldiri 39. Fikzio hiriak
- Aldiri 40. Topaketen kartografia III

Aurten ALDIRI aldizkariak 10 urte bete ditu eta urteurren hori ospatzeko kanpaina berezi bat egin dugu bertako protagonistei Buruxkak liburutegi digitalean hainbat elkarrizketa eginez: *Unai Fernandez de Betono; Kepa Iturralde; Ula Iruetagoiena; Ibai Gandiaga; Agurtzane Elguren; Anartz Ormaza; Laura Maioz; Itsaso Larramendi; Ander Zangitu; Leire Milikua; eta Ianire de Andres.*

OSAGAIZ aldizkaria

UEUk eta Osasuna Euskalduntzeko Erakundeak elkarlanean Osasun Zientzien aldizkari elektronikoa argitaratzen dugu: OSAGAIZ. 2019an hiru zenbaki berri kaleratu ditugu.

Unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko deialdia eta diru-poltsak

UEUk liburugintzako deialdia egin du maiatzean. Deialdiaren xedea euskarazko unibertsitate-liburuen sorkuntza sustatzea da, eta edukien kalitatea bermatuko duen bide eraginkorra proposatzea. Era

berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, UEUK unibertsitate-mailako ikasmaterialak sustatzeko hiru diru-poltsaren deialdia egin du. Poltsa bakoitzaren iraupena gehenez urtebetekoa da eta diru-zenbatekoa 1.000 eurokoa. Jakintza-alor guztietara irekita dagoen deialdia da. Hauek izan dira irabazleak:

- **A, e, i, o, u berri baten xerka. Literatura Kritika Feministatik Literatura Teoria Feministara** (Iratxe Retolaza Gutierrez)
- **Bi hizkuntza garun bakarrean: Euskal psikohizkuntzalaritzaren ekarpenak eta erronkak** (Kepa Erdozia Uriarte, Mikel Santesteban Insausti, Adam Zawiszewski)
- **Nola egiten da Herria? Hegemoniaren eraikuntzaren begirada populista bat** (Galder Sierra Zapirain)



BURUXKAK liburutegi digitala

Buruxkak liburutegi digitalaren helburua da UEUK argitaratu dituen liburu, aldizkari eta doktorego-tesiak biltzea eta euskarri elektronikoa unibertsitario euskaldunei eskaintzea, ikasteko, irakasteko, irakurtzeko eta ikertzeko erabil ditzaten. 2019an zehar, edukia online jartzeaz gain, gure liburu eta artikuluen egileei elkarrizketak egin dizkiegu: *Edurne Alonso eta Iker Badiola; Jaione Abaurrea Larraioz eta Aitzol Lasa Oiarbide; Ainize Madariaga; Idurre Lekuona; Aitor eta Josu Zuberogoitia; Aitor Garcia; Ainara Santamaria; Miren Artetxe eta Ane Labaka; Andoni Olariaga; Oihana Etxebarrieta, Maria Ruiz eta Laura Vara; eta Josu Martinez.*

Sarako Idazleen Biltzarra eta Liburu Azokan egon gara

Urtero bezala, Sarako Idazleen Biltzarra eta Liburu Azokan egon gara apirilean gure argitalpenak ezagutzera emateko asmoz. Bertan aurkeztu dugu *Komunitatea hats bahiturik. Hitzunaren trauma: diagnosia eta paliatiboak* liburua, Ainize Madariagak idatzitakoa.

Durangoko Azoka #54DA

54. edizioa izan du Durangoko Euskal Disko eta Liburu Azokak, eta urtero bezala, UEU bertan izan da. UEU unibertsitate-mailako euskarazko produkzioan aitzindaria den heinean, ezinbestekotzat jotzen dugu urtero-urtero bertan egotea. Liburuak saltzeaz gain, UEU eta bere lana ezagutaraztea da gure helburua azokan. Betiko moduan, liburu-egileek, UEUKideek eta lantaldeak bete dituzte txandak. Era berean, aurten bost libururen aurkezpenak egin ditugu: *Komunitatea hats-bahiturik. Hitzunaren trauma; Zalantzen amaiera? Argien Mendetik Irudiaren Arora; Bertsolaritza feministotik (bir)pentsatzen; Erlatibismoaren egiak. Konstruktibismoa, egia-ostea, postmodernismoa eta beste mamu batzuk; Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feministotik birpentsatzeko.*

Informazio- eta komunikazio-teknologiak

INGUMA datu-basea

INGUMAK 19. urteko ibilbidea egin du, egitasmoa hazten eta aberasten jarraituz. 2019an, besteak beste, 529 egile berriren produkzioa barneratu eta 1.163 erreferentzia katalogatu ditugu, horietatik % 79 idatzizko lanen datuak izan dira. INGUMAn 42.859 produkturen datuak (liburuak, itzulpenak, artikulak, liburu-atalak, hitzaldiak, ikastaroak...) ditugu eskura eta 18.583tik gora erreferentziaren edukia zuzenean kontsulta daiteke.

TESIKER, hobetuta


INGUMAn katalogatutako 763 tesietatik, Tesiker egitasmoaren bitartez, Euskarazko Doktorego Tesien Datu Basean jasota, 550 tesiren corpusa sarean eskuragarri dago. Euskaraz egin diren tesien % 70 da hau. Egitasmoaren jardunak bi mutur ditu: tesi zaharrak digitalizatzea eta gordailu digitaletako tesiak biltzea. 2019an 4 tesi digitalizatu eta gordailuetatik 50 tesi bildu dira. Aurten webgunea berri egin dugu.

ARTIZARRA sare soziala, komunitatea trinkotzen

INGUMA datu-basean oinarritzen da eta LinkedIn sare profesionala zein Google Scholar, ORCID edo Research Gate ikertzaileen guneak ditu inspirazio-iturri. Komunitate zientifiko-tekniko euskalduna ezagutaraztea eta ikertzaile zein profesionalen saretzean laguntzea da ARTIZARRAren helburu nagusia. 700 partaide biltzea lortu du bere lehen urtean.

UNIBERTSITATEA.net ataria

Euskal ikertzaileek egiten duten lana gizarteratzeko konpromisoarekin jarraitzen du Unibertsitatea.net atariak, eta hamabostero, atariko Zitzu Bizian albistegian, euskal ikertzaile gazteak elkarriketatzen jarraitzen dugu. **Guztira, 13:** Itziar Mujika (Kosovo emakumeak), Nagore Martinez (Emakume presoak eta kirola), Elena López (umeak, haur-eskola, kortisola), Teresa Esteban (Parkinsona), Ainara Valencia (korrokoikiak), Alex Martinez de Agirre (nekazaritza-lurren zimurtasuna), Haritz Plazaola (Drosophilak), Iera Arrieta (matematikak), Jon Alkorta (IXA), Miren Ibarluzea (itzulpengintza), Jorge Aramburu (gibelego minbizia), Lorena Zudaire (elikagai prozesatuak), Itziar Urizar (obozitoak), Begoña Yuguero (Nafarroako Erret gazteluak). Horretaz gain, bi blog berri ditugu: *UEUren Mintegia* eta *Iparrorratza*. Bestetik, Ikasleen Txokoa iragarki-taulak arrakasta handia izan du aurten. Aurreko urtean egindako egokitzapenekin, ia bisitarien erdiak mugikorretatik etortzea lortu dugu.



BAIONAN

Arsenal plaza 1
64100 Baiona
iparraldea@ueu.eus

BILBON

Erribera kalea 14, 1D
48005 Bilbo
T +34 94 679 05 46
Idazkaritza@ueu.eus

EIBARREN

Markeskoa, Otaola 1
20600 Eibar
T +34 943 82 14 26
markeskoa@ueu.eus

IRUÑEAN

Joaquin Beunza 13, behea
31014 Iruñea
T +34 948 36 25 63
nafarroa@ueu.eus